

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko apirilaren 3tik 8ra** bitarteko aldizkarietan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratutakoak

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

2017/04/05eko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. **Lan hitzarmen kolektiboak.**- 2017ko martxoaren 22ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren arabera erregistratzen eta argitaratzen den areto futboleko Hitzarmen kolektiboa. 3758. xedapena – 26 or.

2017/04/06ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. **Lan hitzarmen kolektiboak.**- 2017ko martxoaren 28ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den zementuaren eratorrien sektoreko Hitzarmen kolektibo orokorraren 2016. urteari dagokion soldata taula. 3812. xedapena – 2 or.

2017/04/05eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

- AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. **Eusko Jaurlaritza. Lana eta Justizia.**- Gipuzkoako Zerbitzuguneen Hitzarmen Kolektiboa 2016-2019 urteetarako. 2299. xedapena – 24 or.

II.-XEDAPEN ARAUTZAILEAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala): Estatuko Aldizkari Ofizialaren linka

2017/04/07

- GORTE NAGUSIAK. **Hipoteka-zordunen babesa.**- 2017ko martxoaren 30eko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den martxoaren 17ko 5/2017 Errege Dekretu Legea baliozkotzeko akordioa argitaratzea; azken horren bitartez, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Dekretu Legea, baliabiderik gabeko hipoteka-zordunen babeserako premiazko neurriei dagozkiena, eta maiatzaren 14ko 1/2013 Legea, hipoteka-zordunen babesa indartzeko, zorra berregituratzeko eta gizarte-alokairurako neurriei buruzkoa, aldatzen dira. 3819. xedapena – 1 or.
- BARNE MINISTERIOA. **Zirkulazioa. Neurri bereziak.**- 2017ko martxoaren 28ko Ebazpena, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren 2017ko urtarrilaren 2ko akatsak eta zeinaren bitartez ezartzen diren trafikoa 2017. urtean zehar arautzeko neurri bereziak. 3820. xedapena – 2 or.
- NEKAZARITZA ETA ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOA. **Prozedura administratiboak. Kudeaketa informatizatua.**- 2017ko martxoaren 30eko Ebazpena, Idazkariordetzaarena, zeinaren bitartez ezartzen den 044 kodea duen "Tasa fitosanitarioak" izeneko

tasa baliabide elektronikoen bidez kitatzeko eta ordaintzeko prozedura. 3821. xedapena – 2 or.

EHAA (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala): Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren linka

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala): Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

2017/04/05

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 28koa, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen zergarekin lotua. 1243. xedapena – 4 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala): Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren linka

2017/04/03

- Ogasun eta Finantza Saila.- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 581/2017 FORU AGINDUA, martxoaren 24koa, zeinaren bitartez onesten den sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako zatikako ordainketarako 218 eredia. 2 or.
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 582/2017 FORU AGINDUA, martxoaren 24koa, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredia onesten duena. 3 or
-
-

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala): Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren linka

EBAO (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren linka

Kepa Bilbao Zubiaur
Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95
e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

.....

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAIO 26 - 48009 BILBAO